



Federazio Sariko estropada, Elorrabin

Kadete eta infantil mailako arraunlariek hartuko dute parte, 11:00etan hasita. Sariko azken estropada izango da.

DENBORALDIARI ekin aurretik, Federazio Saria jokatzeko ari dira kadete eta infantilak, bateletan. Bi estropada jokatu dituzte dagoeneko eta gaur izango da azkena. Elorrabin lehiatuko dira zein baino zein, 11:00etatik aurrera. Hernaniko neska-mutilek emaitza onak lortu dituzte aurreko estropadetan eta gaur ere lan txukuna egitea espero da. Arraunzaleentzat goiz pasa ederra izango da. /3

◆ ERREMONTA Materiala prest, astearteko finalerako

Binakako Txapelketako finala asteartean jokatu dute Urriza-Endika eta Uterga-lonek. Guztia prest dago. Ostiralean aukeratu zuten materiala; zeharo desberdina. Aurrenekoek pelota mantsoa-goak aukeratu dituzte; bigarrenak, berriz, arinagoak eta bote haundikoak. /3

❖ ASTIGARRAGA Ekintza ugari, urtarrilean

Astigarragan, kultur ekintza ugari antolatu dituzte urtarri-rako. Besteak beste, txotx irekiera urtarriaren 15ean izango da. /6

◆ PALA Pala saioa bihar, ume eta helduentzat

Hernaniko Pala taldeak, pala saioak antolatu ditu bihar, ume eta helduentzat. Tilosetako frontoian izango dira. Goizean, umeen txanda izango da: 10:00-11:00, 8-10 urtekoak; 11:00-12:00, 11-13 urtekoak; eta 13:00-14:00, 14-16 urtekoak. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera, berriz, 17 urtetik gorako guztiek hartu ahal izango dute parte. II

GAUR KRONIKAN

LABURRAK: erronda, Libre dinamika, Ereñotzu... /2

Eskelak /3

Literatur Txokoa /3

Urteko azken ostirala /8



Aurreneko pausoa, erabakitze eskubidearen alde

GURE Esku Dago ekimena, martxan da Hernanin ere. Erabakitze eskubidearen alde lanean ari den dinamika herritarra da, plurala eta parte hartzailea, eta atzo arlo eta sentsibiltate desberdinetako 80 herritar inguruk beraiei babesa azaldu zioten dinamika. Lehenengo pausoa eman du. Bigarrena, otsailean izango da. Herri mailako aurkezpena egingo dute, guztien topagune izan nahi duena. Hirugarrena, Durango eta Iruñea arteko gizakatea osatzea. Dinamika ez da hor bukatuko. /2

**EDOZEIN KLASeko
LURRAK JARTZEN
DITUGU**

PAPER PINTATUETAN 10% DTO

Eskatu aurrekontua
konpromezurik
gabe

**PVC
MOKETA
LAMINATUA
PARKETA**

**EROSKETAK ETXERA
BIDALTZEN DIZKIZUEGU**

Laminatua AC4 Hidrofugoa
kolokatua eta guzti.

26,90€/m²

**PROKOLOR ZENTRUA
MARGOAK**
Landaribar, s.l.

astehenetik ostiralera
7:30 - 13:00 / 15:15 - 19:00
Larunbatetan
9:00 - 13:00

Procolor. *Landaribar*
943 552131
KARDABERAZ 45, HERNANI



ERREGE OPIL BEREZIAK DITUGU

- Azukre gabe
- Arrautzarik gabe eta espelta irinarekin

oa

Kardaberaz 13-16
Tel: 943 55 24 48

**ARALAR
TABERNA**



**GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ**

**ZAPA KALEA 8
T 943 33 15 06**

GURE ESKU DAGO



Kultura, kirola, hezkuntza, politika... arlo eta sentsibiltate desberdineko hernaniarrek babesa eman zioten atzo Gure Esku Dago ekimenari.

Sentsibiltate ezberdineko 80 herritar bat eginda, erabakitze eskubidearen alde

Martxan da Gure Esku Dago dinamika Hernanin, eta atzo, sentsibiltate eta arlo desberdineko 80 bat herritarrek euren babesa eman zioten dinamikari. Otsailean, aurkezpene izango da eta ekainean, gizakatea.

GURE Esku Dago dinamika herritar bat da, Euskal Herriak duen erabakitze eskubidearen inguruan lanean ari dena. Hainbat herritan bezala, Hernanin ere martxan da eta atzo, sentsibiltate eta arlo desberdineko 80 bat hernaniarrek beraien babesa eman zioten dinamikari.

Bertan elkartu ziren, euskaldunak eta erdaldunak, alderdi politiko desberdinetako herritarrek eta arlo desberdinekoak; hala nola, kirol mundukoak, lan mundukoak, kulturakoak, hezkuntza-koak... Izan ere, dinamikaren helburua da, errespetua eta pluraltasuna oinarri hartuta,

herritarrek elkartu eta aktibatzea, oinarritzko printzipio demokratiko baten inguruan: erabakitze eskubidearen inguruan. Argi dute: «Erabakitze eskubidea ez da helburu politikoa, helburu prepolitikoa da». Eta oinarritzko 3 ideia: «Nazioa gara, erabakitze eskubidea dugu eta herritarren garaia da».

Otsaileko aurkezpene, denen topagune

Atzoko irudia, aurreneko pausoa besterik ez zen izan. «Oraindik jende asko falta da», diote Hernaniko taldeko kideek eta ahalik eta gehien zabaltzeko lanean jarraitzeko

asmoa dute. Hurrengo pausoa, otsailean emango dute. Aurkezpene egingo dute eta guztien topagune izatea dute helburu.

Gizakatean, 600-700 hernaniar

Euskal Herri mailako deialdi bat ere egin du Gure Esku Dago dinamika eta horixe izango da hirugarren pausoa. Gizakatea egingo da, ekainaren 8an, Durango eta Iruñea artean. 130 km-ko tartean, 50.000 lagun biltzea da erronka. Hernanik kilometro bat dauka, 101 km-a, eta 600-700 hernaniarrek parte hartzea da helburua.

Jarraipena izango duen dinamika

Aipaturiko hitzordu horiek izan arren hurrengo pausoa, dinamika ez da hor bukatuko. Eta ekimen horien bidez, Hernanin oinarri sendo bat sortu nahi dute.

Irailetik martxan

Gure Esku Dago dinamika ekainaren 8an sortu zen eta 14an aurkeztu zen Hernanin. Bertatik, herritar batzuk martxan jarri zuten Hernani mailako taldea. Irailean hasi ziren lanean eta egun, 36 lagun inguru dabilta, sentsibiltate desberdinetakoak. ■

❖ URTE ZAHARRETAKO ERRONDA

Bertsotan eta kantuan ibiliko dira urtea agurtzeko

Urtea agurtzeko, asteartean erronda egingo dute Ohitura Zaharrak abesbatzako eta Bertso Eskolako kideek. 17:15etan jarri dute hitzordua, udaletxe arkupean. ■

❖ LIBRE DINAMIKA

Umeen txokoa, musa, poteoa eta zozketa, asteartean

Libre dinamikaren barruan, egun osoko egitaraua prestatu dute asteartean. Epaiaketa politikoen aurka, Garin libre! Utzi Euskal Herria bakean! antolatu dira ekintza hauek. 11:30etatik 13:30etara, umeen txokoa izango da Plaza Berrin; 16:00etan, Mus Txapelketa gaztetxean; 19:00etatik 20:00etara, triki poteoa Garinetik; 20:00etan, deialdia Garinen aurrean, naranjaz jantzita (kamixetak, zapiak, globoak...); eta 20:30etan, saski eder baten zozketa. ■

❖ IPUIN KONTAKETA

‘Apaxi’ ipuin kontalaria, ostegunean

Ipuin kontaketa izango da ostegunean, 17:00etan Biterin, Apaxi ipuin kontalariaren eskutik. ■

❖ EREÑOTZU

Bilbora autobusean joateko, Irrintzin eman behar da izena

Tantaz tanta, itsasoa gara lelopean, manifestazioa izango da Bilbon, urtarrilaren 11n. Giza eskubideen, irtenbidearen eta bakearen alde egin dute deialdia, Euskal Presoak Euskal Herriatzeko eskatuz. Bertara joateko, Ereñotzutik autobusa antolatuko dute. 15:00etan abiatuko da. Izena Irrintzi tabernan eman behar da. ■

❖ BASQUE CULINARY CENTER

Gaztetxoentzako 3 eguneko ikastaroa, ostegunetik larunbatera

12-17 urteko gaztetxoentzat sukaldaritza ikastaroa antolatu du Basque Culinary Centerrek. Hiru eguneko ikastaroa izango da, datorren aste honetan: ostegunean, ostiralean eta larunbatean, 10:00etatik 14:00etara. 14 lagunentzat dago lekua, gehienez. Prezioa: 145 euro.

Horrez gain, Sumilleria eta Enomarketing Masterra antolatu dute otsailetik aurrera eta izen ematea zabalik dago. Beste hainbat ikastaro ere izango dira urtariletik uztailean eta informazio guztia eta izen ematea, helbide honetan: www.bculinary.com ■

❖ JAIONE KONJELATUAK



Esther Biurarenarentzat, 200 euroko balioa duen saskia

Jaione Konjelatuak dendak 25 urte bete ditu aurten eta zozketa berezi bat egin du Gabonetan. 200 euroko balioa duen saskia edo lotea zozketatu du eta Esther Biurarena izan da sariduna, 0615 zenbakiarekin. ■

❖ ASTIGARRAGA

Puzgarriak eta jolasak, ostiralean

Haur parkea izango da ostiralean, Astigarragako kiroldegian, 11:30etatik 13:30etara eta 17:00etatik 19:30etara. ■

ARRAUNA - FEDERAZIO SARIA

Hirugarren eta azken estropada gaur, Elorrabin

Federazio Sariko azken estropada izango da. 11:00etatik aurrera ariko dira lehian, kadete eta infantil mailako arraunlariak, bateletan.

HERNANIKO arraunlariek emaitza ederrak lortu dituzte Federazio Sariko aurreko bi estropadetan eta gaur ere, lehia politaz gozatzeko aukera izango da Elorrabin. Federazio Sariko hirugarren eta azken estropada jokatuko da, 11:00etatik aurrera. Kadete eta infantil mailako neska-mutilak izango


dira lehian, bateletan.

Batel Liga, Loiolako estropadarekin hasiko da Gipuzkoako Batel Ligari dagokionean, urtarilaren 11n hasiko da maila guztietan, eta aurreneko estropada Hernaniko Arraun Elkartek antolatuko du. Loiolan izango da, aurreko urteetan bezala.

Gabonetako saskia jasotzeko, hilabeteko epea

Arraun elkartek Gabonetako saskia zozketatu du eta gogorarazi dute, zenbaki saritua atera dela. Eguberri-tako loteriaren azken lau zifrekin bat egiten duena da. Saria jasotzeko hilabeteko epea dago. ■

ERREMONTEA - BINAKAKO TXAPELKETA



Urriza, Endika, Uterga eta Ion ostiralean, material aukeraketan.

Argazkia: Maialen Andres.

Oso pelota desberdinak aukeratu dituzte bi bikote finalistek

Urriza eta Endikak pelota mantsoagoak aukeratu zituzten; Uterga eta Ionek, berriz, arinagoak eta bote haundikoak. Finala, asteartean.

GUZTIA prest dago Bina-kako Txapelketako finalerako. Asteartean jokatuko da 17:00etatik aurrera Galarretan eta ostiralean materiala aukeratu zuten bi bikote finalistek. Oso pelota desberdinak aukeratu zituzten.

Alde batetik, Urrizak eta Endikak, pelota mantsoagoak aukeratu zituzten; gorrigoak eta bote gutxiak (130 g, 127 g eta 131 g-ko bi). Uterga eta Ionek, berriz, arinagoak, biziagoak eta bote haundikoak (131 g-ko bi, 128 g eta 126 g).

Bikote bakoitzak, berari komeni zaion pelota aukeratu du. Uterga eta Ionek pelota horiekin lortu nahi dute Urrizak ez izatea pelotarik tantoak bukatzeko. Urriza eta Endikak, berriz, joko azkarra eta bote haundikoa saihestu nahi izan dute.

Orokorrean, lau pelotariak gustora geratu ziren materialarekin

Batzuentzat aurreneko aldia Orokorrean, lau pelotariak materialarekin gustora geratu arren, Urrizarentzat bote gehitxo zuten ia pelota guztiek: «Final baterako gehiegizko botea zutela iruditu zait. Eta horrek kalte egiten dio espektakulari. Hala ere, garrantzitsuena da, laurok gustora geratu garena».

Urrizak seigarren finala jokatuko du asteartean eta horietatik lau irabazita dauzka. Oraingo honetan, Endika izango du lagun. Erremontista gazteak aurreneko aldiz hartu du parte txapelketan eta finalera iritsi da. Gainera, atzelari gisa jokatzen ari da,

beretzako postu berria dena. «Momentuz lasai nago. Final ederra espero da eta konfiantzarekin nago», azaldu du.

Utergarentzat ere debuta izango da eta gainera lesio-natuta egon da. Horregatik atzeratu da finala. Dena dela, bera seguru dago: «Oso ondo errekuperatu naiz eta oso ondo sentitzen naiz».

Ionek, berriz, laugarren finala jokatuko du eta orain dela bi urte irabazi egin zuen Zeberiorekin. Aurten ere errepikatzeko asmotan da: «Uterga eta biok lagun onak gara eta oso ondo moldatzen gara kantxan».

Urtasun nagusi, Banakako Masterrean

Atzo inauguratu zen Banakako Masterra eta Urtasunek ez zion aukerarik eman Juaristiri. 25-30 nagusitu zen. ■

Literatur txokoa

Bultzatzaileak:

dobE
EUSKARA ELKARTEA

Hernaniko
Udal Liburutegia

JOXEMARI IRAOLA ARANZADIK
GOMENDATZEN DIZU



DE RERUM NATURA 5: 2011-2013

Zaldieroa

Elkarlanean

ZaldiEroaren pertsonaiak eta istorioak

Unibertso berezi eta partikularra ZaldiEroak osatzen duena egunegun Berria egunkariko tirekin. Unibertso hori osatzen duten pertsonaiak eta istorioak kontrajarriak dira: istorioak tristeak; pertsonaiak barregarriak. Lehenengoak ezagutzea eta norbere baitan kudeatzea betebeharra da. Bigarrenengoekin disfrutatzea eskubidea. Ez dira argitarapen asko izango istorio tamalgarriekin eta protagonista esperpentikoekin, negarra eta barrea eragin dezaketenak. Nahitaez marraztutako/kontatuko tira bakoitzean gazia eta gozoa dastarazten ditu egileak.

Bai barre gozoa eragingo dizu: Napoleon Lopezek, Nafarroako Katebegi Galduak, The Organizationek, Euskal Michael Moorek, La pelota Basquak Txosten eta Enmendakinak, Euskal Talibanak eta beste hainbat eta hainbatek.

Negar gazia egitera iritsi zaitezke lantzen dituen 'kronikekin': hemengo politikariak, euskararen egoera, ekonomia edota identitatea bezalako gaiak.

Eta bukatu aurretik, bai bustiko naiz, ez behin bitan baizik: 1) Baietz De Rerum Natura 5 irakurriz gero, aurreko lauak lortzen saiatu? 2) Norbaitek galdetuz gero liburuki honetako tirarik ho-berena zein den, nik zalantzarik ez dut, 47. orrian, azpian dagoena.

Liburua gomendatu nahi duenak, kontuan izan beharrekoak: euskerazko liburuak gomendatu behar dira; 800 karaktere inguru idatzi; eta izen abizenak jarri. Bidaltzeko: dobera@dobera.com edo liburutegi@hernani.net. Edo paperean eraman Doberara edo Udal Liburutegira.

Eskelak



SAGRARIO LASPEÑAS ZUÑIGA

EKAITZEN HERNANIKO KUADRILA

Hernanin, 2013ko abenduaren 29an



SAGRARIO LASPEÑAS ZUÑIGA

(Ekaitz Ezkerra Laspeñas presoaren ama)

Ezagutu ez zaitugun arren
izan duzu nahiko kemen,
agurtu zarete eta
denok egin dugu hasperen.
Nahiz eta ez zaitugun hemen
Ekaitz ez galdu itxaropen
ama eta denok
izango baigaitzuz aldamenen

HORTZAK ESTUTU

Hernanin, 2013ko abenduaren 29an



II URTEBETETZEA

Antonio Goikoetxea Beobide

"Mekanikoa"

2001ko abenduaren 30ean hil zen, 94 urte zituela,
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Emaztea: Mari Carmen Urdangarin; seme-alabak: Carmen eta Juan Jose Etxeberria, Pablo eta Begoña Paradelas, Paki eta Josep Armengol, Marian eta Mikel Plazaola; bilobak: Maria, Itziar eta Mikel, Monika eta Marina, Maialen, Paul eta Olatz; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.



Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **GAUR, IGANDEA, eguerdian 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo **Urtebetetzeko mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2013ko abenduaren 29an

Helbidea: Elizatxo 60-2.ezk

Joxe Oiarbide Elortza 'Ttanttua'

«Arrantza? Nik beste afiziorik ez dut izandu»

Azaroaren 5ean joan zitzaigun Joxe Oiarbide Elortza, 'Ttanttua' (Ereñotzu, 1919-2013), 94 urte zituela. Jakinduri haundiko gizona, eta Hernani eta Ereñotzuko historiaren testigu zuzen zuzena. Besteak beste, Urumea bailaran naturarekin batera bizi izan den belaunaldi bateko kide. Hernaniko Kronikak elkarrizketa egin zion, Joxe hil baino bi hilabete lehenago. Gaur kaleratu egingo du, dokumentuaren balioagatik, eta Joxek berak eta bere familiak egindako harrera ona eskertu asmoz. Irailaren 12an Ereñotzuko Agirreberri baserrian egindako elkarrizketa da hau. Han aitortu zion Joxek Kronikari, bere ofizioez aparte, bere afizioa zein izan zen ume-koxkorra zenetik: **arrantza**.



Joxe Oiarbide Elortza
Ereñotzuko zentrolean
hazi zen, eta Lastolan urte
asko pasa ostean,
Agirreberri bizitu zen.

BADAKIGU zu aitarekin amorraietan oso gazterik hasi zirela.

Oso gaztetan. Orduan sarea rekin joaten ginen arrantzara. Bakar-bakarrrik libre izaten ez zena, erria ixtea. Baina harritik goitik behera edo harrian bueltan eta... sarearekin libre izaten zen. Lizentzia aterea izanez gero, ez zuten kasorik egiten gainerakoan.

Zein erriotan ibiltzen zineten?

Denean hemen. Hemen eta, Añarben ere bai eta, Artikutza-ra ere iritsi izandu ginen... Leitzaranen ere bai: sartu hemendik, Agerren (Adarra) barrera, Antxistara joan, Antxistatik Otsolepora, eta Otsolepotik Ollokiegira.

Hori dena oinez?

Dena oinez, orduan dena oinez.

Egun bateko buelta egiten al zenuten?

Ez. Hura izaten zen, gaur konparazio, eguerdian atera etxetik sarearekin, eta hemendik hara pasatzen genuen 2 ordu eta erdi edo horrela, erria sartzen. Eta sarea jartzen gora, gora, gora... eta Ollokiegin lo egin, goitik behera jaitsi eguna hasteko momentuan, eta hartu bizkarrean eta mendia pasa, eta hona.

Arrai asko izaten al zen?

Bai, baina han bastoagoa izaten zen hemengoa baino. Ezagutzen zuten jatetxeetan ere.

Orduan saldu egiten genuen arraia guk. Eskatua izaten genuen. Donostian ere izaten zen eramaten zen guztia hartzen zuena. Baina beti ez genuen izaten, hemen Epele-Etxeberrin eta Fagollagan ere eskaera izaten baitzen. Orduan amorraiak eskaera haundia izaten zuen jateko. Arrantzaletan gutxi zen orduan! Oso gutxi! Gero kaña atera zenean, kriston pillar arrantzalea!

Hemen zein ibiltzen zineten arrantzan?

Gu ttanttotarrak denak arrantzan ibiltzen ginen. Gutxi edo gehiago, ez egunero arrantzan eta horrela, baina... Gure aita difuntua ere hala ibiltzen zen: egun bat enkargatuak ematen bazion, eta besteren bat erreleboa lagunari aldatuta... Ni ere mutil-koxkorra nintzela hasi nintzen.

Beraz, erria behetik gora sareak jarri, lo egin, eta goitik behera arraia bildu...

Beti-beti hori egiten genuen, edo hemen Añarbera joaten baginen, jeneralean Petranean lo, eta bestela Okillegin-edo lo egingo genuen. Gorago joaten baginen berriz, Berdabion. Atera sarea behekoan, eta Errenteri basoan barrera, Etzalan barrera, Benta-Txurin barrera, Epelerrekan barrera, Alkatxuinen barrera, goitik behera Ereñotzura, eta han Txilibitaneko estalpetik direkto gure etxera! Inork bistan ez harrapatzeagatik!

«Amorraiak asko harrapatu ditut nik, baina repoblatu ere bai. Gerra ondoren erreka guztiak erre zituzten, eta guk berriz lepa-hezurreraino bete genituen amorraiez»

«Amorraiatarako leku ona?

Añarbe eta Artikutza bitartekoa. Hau eta Goizueta erria ere bai, ia goi goiko zentraleraino. Handik gora arrai ttikia izaten zen»

Eta zer harrapatzen zenuten? Dena amorraia?

Amorraia, bai.

Zenbat harrapatzen zenuten?

Ez zen beti igual harrapatzen. Giroak egiten zuen asko. Arraia ez da beti igual ateratzen. Arraia harrapatzeko jeneralean behar da epela, beroa... beroarekin aixa da harrapatzen. Hori txingetan (errekan batetik bestera sarea jarrita), kañarekin ez, kañarekin korrientean ibili izandu naiz ni beti.

Ene! Eta gaur harrapatuko baninduteke txinga jarri dudala hemen erria batetik bestera! Jesus! Kastigatuko ninduteke! Eta dena kontrarioa da, ze han neurrikoa ba-

karrik geldituko litzateke. Eta amorrai txikia dena pasako litzateke. Eta amorraia oso koxkorra dela hasten da umeak egiten, oso ttikia dela.

Eta kañak kalte haundiagoa egiten al du ba?

Kañak horregatik izorratu zuen erria asko. Txikia ere harrapatu egiten zelako. Eta haundia bixtan, eta txikia patikan sartuta, ezkutuan eramaten dute.

Eta orduan zein erreka ziren onak? Baten bat ba al zen apartekoa?

Añarbe eta Artikutza bitartekoa. Hau eta Goizueta erria ere bai, hortik ia goi goiko zentraleraino jartzen zen sarea. Handik gora arraia ttikia izaten zen. Eta hara joateko, joaten ginen hemendik Etxolaberrin barrera, Errekalkon barrera, Goizuetara jaitsi. Eta Goizuetan Guardia Zibilak izaten ziren, eta haien bixtan ez pasatzeagatik, Rezolan zentrala baino goraxeagotik pasatzen ginen.

Leitzaranera bidean, Kartolan-eta gelditzen al zineten?

Ez. Erreka horietan kordelak botatzen genituen. Kordela botatzen genuen, txitxare beltz haundiarekin. Txitxare hori ateratzen ziguten Ospitalean (Benefizentzia). Ospitalak terreno haundiak zituen orduan, Katanga eta horiek denak Ospitalarenak ziren orduan. Aitonek pezetan tomate potoa bete txitxare ateratzen ziguten. Errekan zen amorrai haundie-

Hainbat ofizio

1919an jaio zen Joxe Oiarbide Elortza, *Ttanttua*, Ereñotzuko Txokolatenea deitzen zaion etxean. Orduan han omen zen frontoia, ezker paretarik gabea, gaur egun etxe horrek eskilarak dituen horretan, Hernaniko «Txerri» edo *Txirri* modukoa omen zen. Handik zentralera joan, eta han hazi omen zen familia. Ofizio asko izan ditu Oiarbidek: basoan lana egina, ikatz egiten, Hernaniko sereno edo aguazil («gaur egun udaltzain esaten diote»), Lastolako zentrolean gero... eta urte gehien Elektrokimikan enkargatu. Ama Osinagako *Oñatinekoa* edo Pardiola-Txikikoa, eta aita Abillaskoa. Familia guztia *Ttanttua* bezela ezagutzen da. Bertsolariak ere baziren, eta ezagunak, baina Oiarbidek nabarmentzen duenez, beren familian arrantza zuten afizio. «Ttanttotarrak denak arrantzan!»

na ateratzen zen txitxare horrekin. Eta bestela barearekin. Bare txikiarekin. Bare txikia izaten zen, alpapa-eta, frantzi-alpapa-eta... asko egiten baitzen orduan! Horietan izaten zen goizetan primaberran, asko. Ez bare-xixa e! Gero

haziko zen barea. Eta horiek galtzerdian estutu ondo, labe-an sartu, beroan ito, eta gero surtako hautsa eman zorro batean, eta surtako hautsa behatzetan hartu, eta sartzen genuen amuan, bestela eskuak leuntzen ziren eta ez zenuen sartzen! Etenditzen? Harekin harrapatzen zen errekan zen amorrairik haundiena, ze tti-kiak ez zuen jaten hura!

Kartolako hartan ur-saltoa bada; han ere amorraia bazen?

Horietan denetan asko. Horiek gerra denboran izorratu zituzten. Denak erre zituen horiek. Orduan desastre ikaragarria egin zuten hemen errioa-eta... Horiek erreka horiek denak erre zituzten. Lejiarekin batzuk eta karearekin besteak eta... Horrela, hondatu zituzten denak! Baina horiek gero guk repoblatu egin genituen denak!

A bai? Repoblatzen ere ibili al zineten?

Lepa-hezurreraino bete genituen gero guk. Txantxangorri soziedadea sortu zenean, sozio nintzen ni orduan Hernanin, lehendabizikotakoa izango nintzen. Eta orduan ekartzen zizkiguten Frantzitik kajak arrautzekin. Eta kaja bakoitzean milla arrautzen kontua, amorraia. Eta egiten genuen, hemen bertan atera. Tximistak neko horretan erreka txiki bat badago, eta hor toki jakinak izaten genituen jarriak. Gorrotxategik kamio bazterrean ere atera zituen bainera batean!

Ateratzen genituen erreka txiki horretan. Nik Arretxe difuntua lagun haundia nuen. Arrantzale amorratua baitzen! Harek bidoi bat ekarri zuen, 12 litro kabituko zituen, eta nik hari sarea egin nion gainean jartzeko, eta egiten genuen hemen erreka ttiki horretan atera, eta igual 1.000-2.000 eramango genituen! Bizirik hartu bizkarrean, eta amorrairik ez zen tokian botatzen genituen, iturrietan.

Zer, iturrietan? Iturburuetan?

Bai, erreken goiko iturrietan. Eta berak etortzen ziren behera. Ze, amorraia zen tokian askatzea ez zen ona, ze jan egiten zuten! Amorraiak berak jan egiten du. Denak bete ziren erreka horiek, baina bete, bete e!

Eta nola ekartzen zenuten arraia? Añarben harrapatu eta hona iris-terako hondatuko zen ba!

Ez. Saretik azkar libratzen genuen, eta jartzen genion huntza edo bestela osina. Eta ondo kontserbatzen zen amorraia hor. Huntza freskatu uretan, ta gainean sarea jarri eta hartu bizkarrean. Gero hartu buruan, eta takatakataka.

Inistorra ere bai?

Inistorra ere bai, baina freskoa



Joxe Oiartide geroztik hasi zen kainarekin arrantzan. Garai batean ez omen zen kainarik izaten.

behar da. Inistorrak gero hazitzen hasten denean zorria izaten du, xomorroa sartzen zaio. Osinari eta huntzari ez.

Zer gehiago harrapatzen zenuten? Izokia bai?

Bai, baina izokia honera igo-tzen zen, Epeleko-Etxeberriko presa irikitzen zutenean. Eta hor trifulka ibiltze zuten, altzutarrek-eta, gure aita difuntoak-eta... Eta haiek sumatzen zuten zentraleko atea irekitzen zutenean, eta haiek etorri eta itxi egiten zuten. Baina, izokiak baldin baziren, han pasako ziren aguro; izokiak gorako joera haundia izaten du, eta igoko ziren gure presaraino. Ustez gehienak harrapatzen ziren, baina hala ere nola hemen umatzen baitziren, milakak izaten ziren gero izokiak, umeak! Eta hura bigarren urtean joaten da behera.

Bigarren urtean behera joaten da orduan izokia. Eta bitartean hemen ibiltzen al da?

Bi urte hemen egiten ditu, eta hirugarren urterako joaten da behera. Eta guk igual Ereñotzuko kanala, nola soziedadea dago? Ba hor bota izandu genituen.

Izoki kumeak bota? Eta non harrapatuta?

Haren parean bazen pareta zaharrakin txabola bat, kanaletik ura sartzen zena, Nazabal deitzen zioten horri. Han harrapatzen genuen asko. Azpikaldetik erriora zuen ate txiki bat. Ate hura itxi, eta sartzen ziren kanaleko zulora pila bat. Eta salabardoarekin hartu, goraizearekin isats-puntta txikia moztu, eta bota... eta laugarren urtean azaltzen ziren. Bakarren bat haietakoa azaltzen zen laugarren urtean berriz ere hona. Hortxe bi kilo eta erdi, hiru kilokoak sartzen ziren.

«Esango dizut nola jakiten genuen izokiak bueltatzen ziren edo ez. Izoki-kume pila bat harrapatzen genuen salabardoarekin.

Goraizearekin isats-puntta txikia moztu, eta berriz uretara bota... eta laugarren urtean azaltzen ziren».

«Guk arrai guztia saltzen genuen. Guk 6,5 kg-ko izokia harrapatu genuen eta horrek 7 pezeta egin zuen kilo. Orduan 7 pezeta asko zen».

«Amorraiak hiru pezeta egiten zuen kilo. Eta pentsa, Zentralean orduan duro bat irabazten zuten eguneko. 30 duro hilean!»

«Txabaloya ere harrapatzen genuen. Oilarra nola izaten da arraia? Tipo igual, igual, iguala baina txikiagoa izaten zen, eta Karabeldik behera».

Zenbateko izokia ikusi duzu haundiena?

Izokia nik ikusi dudana haundiena, 6 kilo eta erdikoa. Epele-Etxeberriko presaren azpian, eta han harrapatu genituen bi. Orduan altzueta-rrak eta gure aitak eta denek sozio egin zuten. Bazekiten haundiak zirela, eta, sareak eta jarri zituzten, eta bat harrapatu zuen gure aita difuntuak, sarea jartzen ari zela.

Haundiena hark harrapatu zuen.

Harra eta emea desberdinduko dituzue zuek ezta?

Bai bai. Ezagutzen ziren bai. Eta orain izokiak botatzen hasi zirenean, hasieran ondo etorri ziren izokiak, izango dira 7 bat urte. Hementxe bertan, oraintxe bertan ere umatu zen gure etxe gainean. Akazi bat botea zegoen, eta Bixente difuntuak esan zidan: «*hara Joxe, Joxe, Joxe! Barkua ematen du nola dijoan behetik gora!*» Bi ziren bata besteari segika, harra eta emea. Horiek egiten dute batek arrautzak egin eta besteak ahoan pasatzen ditu.

Izoki arrantzan zein ziren famosoak? Eltzekondok ere fama bazuen ezta?

Ni Eltzekondorekin ibili naiz amorraitan, bai. Hark ez dakit, baina hark baino gehiago harrapatuak izango ziren hor, Batxuritarrak. Gainera bat, ito egin zen.

Prezio haundia egiten al zuen?

Begira, esango dizut: guk 6,5 kiloko harrapatu genuen eta horrek 7 pezeta egin zuen kilo. Eta orduan 7 pezeta asko zen.

Eta amorraiak ze prezio?

Bueno, esango dizut. Hiru pezeta eskaxa, erreal bat gutxiago edo horrela kilo amorraia. Gero erregea etortzen zen garaian Donostira, urtero etortzen zen, eta horrek jende asko ekartzen zuen... eta erreal bat igual altxatzen zen, amorraia.

Eta ze jornal izaten zen orduan?

Gehienaz ere, egunean 8 peze-ta edo horrela. Zuk pentsa, zentralean orduan duro bat irabazten zuten eguneko. 30 duro hilean irabazten zuten. Eta bi kilo amorraikin 6 peze-

ta zeuzkazun. Eta bi kilo amorrai harrapatzeko ezer ez zen egin behar. Saiatu egin behar jendeak. Oraintxe bezalaxe!

Jende asko etortzen al zen erregearekin?

Bai bai. Epele-Etxeberri eta horietara ere bai. Eta gobernadora eta denak Epele-Etxeberri, eta orduan ez kotxean, zaldi-karroan! Aieka batetik eta bestetik jarri horrela sei lagun, hiru eta hiru, eta kotxerua, bi zaldiko karroarekin.

Aingirarik eta jaten al zen?

Jesus, jango ez zen ba aingira? Olorik ez zen izaten eta... Txapan gainean erreta, aingirak grasa asko du! Askotan etortzen ziren gure etxera, txapa gainean aingira erre eta talo koxkorra eta...

Zenbat eta haundiagoa, eta jateko motelagoa izaten da.

Aingira zenbat haunditzen da?

Leitzararen harrapatu dut nik 5 kiloko aingira. Bi ziren zulo batean. Argiarekin amorraia geratu egiten da, baina aingira ez, eta behera zetorrela, jarri nion sarea, eta sartu zen, eta bota nuen alde batera, eta lepoa iriki nion. Noizpait ere txistu egin eta Manuel etorri zitzaidan eta hark eraman zuen gora. Eta haiek jan zuten. Motela omen zen!

Zer gehiago izaten zen errioa?

Leitzararen kangrejua. Hemen ez zen kangrejorik. Hemen behin baino gehiagotan proba egin genuen, kangrejoarekin. Epelerrekan ere bai.

Eta zergatik ez da hemen kangrejorik?

Horrek karea behar izaten du. Laxkibar aditzea izango duzue! Horrek urak analizatzen zituen. Berak esaten zuen, egite ezkeroz, Epelerrekan egingo zirela. Eta ekarri Leitzarandik, eta bota, baina ez ugaritzen. Kartolan ere bota izandu genituen Arretxe difuntuak eta biak, baina... ez genuen gehiagorik ikusi.

Eta besterik ba al zen?

Txabaloya bai, oilarra nola izaten da? Arraia, oilarra? Tipo igual igual iguala, baina txikiagoa izaten zen, eta Karabel aldetik behera. Jeneralean lurpean egoten zen.

Eta ur-ondoko piztiak asko. Orain galdua dagoena, ur-txakurra edo iyaraba bietara esaten zitzaiona; nutria, erderaz. Horiek pasaran bezela etortzen ziren. Oso gutxi izaten zen. Ikaratzeko moduko karaxik egiten zituzten. Nik behin bakarrik harrapatu izandu nuen, eta orduan besteren zepoan. Florentino Altzueta-koaren zepoan, eta berari entregatu nion. Nik orduan dozena bat urte izango nituen. Galdu ziren ur-txakurrak. ■

ASTIGARRAGA - URTARRILEKO KULTUR AGENDA

Txotx garaia martxan, hilabete erditik aurrera

Sagardo Berriaren Eguna urtarrilaren 15ean izango da: ekitaldia, txotx irekiera eta pintxotx antolatu dituzte. Zinea, antzerkia, ludoteka, Jabetze Eskolak... ere izango dira, urtarrilean.

ASTIGARTARRAK prest dira urteko zita inportantenerako: Txotx Irekiera. Urtarrilaren 15ean hasiko da 21garren sagardo egunarekin. Handik aurrera, eta maiatza bitartean, zabalik izango dira sagardotegietako kupelak.

Txotx Eguna antolatu dute aurten ere, irekiera eguna indartuz. Eguerdiko 12:00etan, Andoni Gartzia Astigarragako Alkateak egingo du aurkezpena Kultur Etxean. Sagardoaren uzta berria aurkeztuko du eta sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarriak emango ditu. Alorrenea sagardotegira gerturatuko dira guztiak ondoren, irekiera nagusira. Bertan zabalduko da aurten denboraldia, ofizialki, aurreneko kupela irekita. Iluntzean berriz, Pintxotx antolatu dute Txotx Egunari amaiera emateko. 18:00etatik 20:00etara izango da, herriko tabernetan lehendabizi, eta elkarte eta sagardotegietan, ondoren.

Josten ikasteko, ikastaroa

Urtarriletik martxora joste ikastaroa antolatu dute Astigarragan. Tytti Thusberg disenatzaileak emango du ikastaroa, astelehenero, Kultur Etxean, 18:30etatik 20:30etara. Ikastaroaren helburua da, josten ikasteaz gain, sormena eta irudimena erabili eta lehendik duzun arropa berrerrabiltzea eta eguneratzen ikastea. Ikastaroaren prezioa: 81 euro.

Bi antzezlan, bi igandetan

Antzerkia izango da urtarri-leko beste ekitaldi aipagarrietako bat. Bi saio antolatu dituzte, biak, igandean.

La ultima oportunidad antzezlan hilaren 18an izango da, Gurutze Beitia eta Julian Iantzi aktore ezagunen eskutik. Sinopsia: neskak ama izan nahi du eta intseminazio artifiziala du aukera. Mutila hileroko hazi dosia entregatzera dijoa. Behar baino gehiago ezagutzen dira. Kultur etxean izango da, 20:00etan.

On egin antzezlan hilaren 26an izango da, Kultur Etxean baita ere, 17:30etan. Asier Sota, Anartz Zuazua eta Arkaitz Gartziandia izango dira aktoreak; sukaldaritzari buruz ariko dira. ■



Julian Iantzi izan zen joan den urteko protagonista, txotx irekieran. Urtarrilean ere Astigarragan izango da, antzezlan batekin.

URTARRILAK 3, OSTIRALA

Haur parkea, Kiroldegian, 11:30-13:30 eta 17:00-19:30

URTARRILAK 5, IGANDEA

Plaza dantzak, J.Barandiaran plazan. 12:00

URTARRILAK 9, OSTEAGUNA

Marixor *ipu in ordua*, Kultur Etxean, 17:45etan ta 18:15etan.

URTARRILAK 11, LARUNBATA

Zinea: Jelly T Tarzan eskasa. Kultur etxean, 17:00etan.

URTARRILAK 12, ASTEARTEA

Txistularien Diana. 09:30etan.

URTARRILAK 13, ASTELEHENETAN

Joste ikastaroa. Kultur etxean, 18:30-20:30.

URTARRILAK 15, ASTEAZKENA

XXI. sagardo berriaren eguna: Ekitaldia, Txotx irekiera eta Pintxotx

URTARRILAK 18, IGANDEA

Antzerkia: La última oportunidad. Kultur etxean, 20:00etan

URTARRILAK 21, ASTEARTEA

Zilegi Eskola: Lur Denok kooperatibaren aurkezpena eta produktu banaketari buruzko azalpenak. 19:00.

URTARRILAK 26, IGANDEA

Antzerkia: On egin. Borobil teatroa. Kultur etxean, 17:30etan.

URTARRILAK 27, ASTELEHENA

Literatur solasaldiak: *La habitación oscura* liburua. Liburutegian, 19:30etan.

URTARRILAK 28, ASTEARTEA

Zilegi Eskola. Enara Goikoetxea harrien eta energiaren inguruan ariko da. Kultur Etxean, 09:30etan.

Zine Foruma. Amaren eskuak. Kultur etxean, 18:00etan.

LABUR LABUR

KZ Gunea. dinamizatzailea urtarrilaren 13an egingo da bertan, 09:00etatik 13:00etara. Gazteen informazio guneko ordutegian ere, erabilgarri egongo dira ordenagailuak. Zabalik, goiz eta arratsalde, ostegun eta ostiralean 11:00-13:00 eta 17:30-19:30.

Zumba & Zumba kids JR ikastaroa. Kiroldegian 4-6 urte bitarteko umeentzat, astearteetan, 17:30etan. 7-11 urte bitartekoentzat, ostegunetan, 17:30etan.

Danborrada. San Sebastian bezpera ospatzeko danborrada Arantzazuko Ama ikastolako neska-mutilen eskutik. Urtarrilaren 17an, 16:00etan.

Ate irekiak. Ikastola ezagutzeko bisita irekiak antolatu dituzte urtarrilaren 29an, 18:00etan. Otsaila hasieran bi urteko haurren matrikulazio epea irekiko da.

PUBLIERREPORTAJEA



Alberto Rodriguez, sukaldaria eta jabea.

SUHARRI JATETXEA

Alberto Rodriguez sukaldaria:

«Kalitatea eta elaborazioa, gure sukaldearen oinarria»

Hernani erdigunetik hiru minutura, Suharri jatetxea martxan da. Gosariak, eguneko menuak, karta, pintxoak, kaxuelitak... aukera zabala duzu, lanera bidean, etxera bueltan, lagunartean bazkaltzeko edo familiarekin afaltzeko. Jauregi auzoan zabaldu du Alberto Rodriguez sukaldariak jatetxea, Galarreta pelotaleku alboan. Bihar, Gabonak izaki, zabalik izango da; ohiko ordutegia ordea, asteartetik igandera bitartekoa izango da, goizeko 07:30etan hasi, eta afalostera arte.

Eguneko menua, elaboratua

Hogeita hamar urteko esperientzia du Alberto Rodriguezek, eta hala erakutsi nahi izan du jatetxerako landu dituen plater eta menu bakoitzean. Eguerditan eguneko menua jateko aukera izango da, tradizioetik haratagoko menuak izango dira, landuak, elaborazio berezikoak. Produktu fresko-freskoak, kalitatezkoak eta bertakoak izateari ematen dio garrantzia Rodriguezek, eta hori nabaritu egiten da momentuan.

Haragiak, arraiak, entsaladak... karta zabala

Kartatik jateko aukera eguerdi eta gauetan izango da. Aukera zabala, hemen ere: bakailua, Galiziako entrekota, entsalada epelak, mendrexka... Postreak ere, etxean egindakoak dira guztiak: arroz esnea, tiramisua, tartetan aukera...

Edariak aukeratzeari ere, eman dio garrantzia Suharri jatetxeak. Jatun onaren osagarri perfektua izan ohi da edari ona, eta hori jakinda, ardo karta zabala dute aukeran: Errioxakoa, Dueroko Erriberakoa, Somontanokoa...

Kristalezko ogia, espezialitatea

Suharri jatetxeak badu espezialitate bat, inguruan gutxi ikusia eta askok ezagutzen ez dutena: kristalezko ogia. Txapata itxurako ogi berezia da, jatorriz kataluniarra eta bertatik ekarria. Momentuan berotzen dute eta era ezberdinetara probatzeko aukera izaten da: tomate eta olioarekin, antxoa batzuekin... Probatzen duenak bi erreakzio izaten omen ditu: harritu eta aurrerantzean errepikatu!



Jauregi bailara, GALARRETA



"BERRIAK"
HERNANIKO MERKATARIEN
ETA OSTALARIEN ELKARTEA

Hernanik
kronika

**GABONETAKO
ZOKETA
2013**

IRABAZLEAK

1.go SASKIA

0080

*Non saldua:
Mariscos Hernani*

Jaione Kongelatuak Iberiko sorta

Aitor Peña Bost litro olio

Antziola Okindegia Erregetako roscoa

Kaixo Emakumezkoen aterkia eta kartera

Aralar Arnegui Magnum kaja

Galerias Buen Precio Kristalezko fruteroa

Oindi Viña Real ardo kaja

Mariscos Hernani Marisko saskia

Dobera - Kronika Mahai jokoa

Ilargi Lepoko bat

Amegar Kafetera CG412

Adarraga Turroi sorta

Balantxa Ile-sekadorea

Biokbi Eguzkitako betaurrekoak

Urrats Etxeko zapatilak aukeran

3. SASKIA

1.584

*Non saldua:
Dorronsoro-Lizeaga*

Peña Jaboi kaja bat

Antziola okindegia Erregetako roscoa

Jaione konjelatuak 2 kg langostino

Kaixo Gazteentzako motxila + estutxea

Galerias Buen Precio Kristalezko frutero bat

Errioguarda Otordu bat 2 pertsonentzat

Kera Jertse bat

Dobera-Kronika Mahai jokua

Nekane Estetika Aurpegi garbiketa bat

Ikusi makusi Puzzle bat

Diztira Lepoko bat

Urumea burdindegia Labana sorta bat

Portalondo Maletin bat

Marife Mediana bat

2. SASKIA

2.407

*Non saldua:
Irigoien oinetakoak*

Hernani Bidaiak

Posada Santa Ana Suances (kantabria)

2 gau pentsio erdian, bi pertsonentzat

Kaixo

Maleta bat

Diztira

Nezeser bat

4. SASKIA

1.212

*Non saldua:
Hernaniko Kronika*

Antziola okindegia Erregetako roscoa

Galerias Buen Precio Kristalezko ordulari bat

Jaione konjelatuak Iberiko sorta

Nekane Estetika Aurpegi garbiketa bat

Ikusi makusi Wou kotxea

Diztira Eskularruak


Urumea burdindegia Kafe katilu sorta

Portalondo Agenda bat

Dobera-Kronika Mahai jokua

Marife Ganba kaja bat

Telemar 7"ko tablet bat



MILAEsker
PARTE HARTZEAGATIK!!

☎ **TELEFONAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egumez:** **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Lainoak eta ostarteak tartekatuko dira eta zaparradaren bat bota dezake goiz partean. Goizean, elur-maila 800 m inguruan izango da, baina pixkanaka giroa goxatzen joango da. Min.3° / Max.10°.
BIHAR Lainotuta egongo da, orokorrean, baina ez du euririk egingo. Hego-mendebaldeko haizeak tarteka zakar joko du. Min.4° / Max.11°.

Argiz argi etxerako bidea argitu bezala, tantaz tanta itsasoa osatzera

Preso eta iheslariak gogoan izan zituzten urteko azken ostiralean. Herritar ugari atera zen kalera haien esku-bideak aldarrikatzera. Argi txiki ugariz, etxerako bidea argitu zuten eta urtarilaren 11n filosofia horri jarraitzeko dei egin zuten. «Tantaz tanta, itsasoa izango gara. Tantaz tanta, lortuko dugu».

HERRITAR mordoa atera zen kalera urteko azken ostiralean, preso eta iheslarien esku-bideak aldarrikatuz eta etxeratzeko eskatuz. Lau zutabe atera ziren Antziola, Etxeberri, Zikuñaga eta Portutik. Plaza Berrin bat egin zuten guztiek eta Gudarien plazarako bidea elkarrekin egin zuten, kandela piztuak zeramatzen kristalezko ontziak eskutan. Argi txikiekin, argi haundi bat osatu zuten, preso eta iheslarien etxerako



bidea argituz. Eta filosofia horri jarraitzeko dei egin zuten, urtarilaren 11ko Bilboko manifestazioari begira: «Denok gara beharrezkoak. Bakoitzak bere tanta eramatea beharrezkoa da. Tantaz tanta itsasoa izango gara. Tantaz tanta, lortuko dugu».

Jaialdia, larunbatean
Aurretik, beste hitzordu bat ere badagoela gogorarazi zuten. Datorren larunbatean izango da, Tantaz Tanta Blai jaialdia. Kiroldegian izango da 19:30etatik aurrera. Bestalde, atzo, Martuteneko espetxera martxa egin zuten. II

IRAGARKI MERKEAK

2 gelako etxebizitza salgai. Dena eraberritua, kalefakzioa, 2 balkoieta zerbitzu guztiak eskura. Modu onean. Deitu: 635 758 661
Etxe unifamiliarra salgai, 160 m² + 250 m² lorategi + 90 m² terraza, trastelekua, txokoa, garaiea, 2 solairu. Deitu: 699 49 22 35 (partikularra)
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

AURTENGO GABONETAN OPARITU ESKAPADAK



IHESALDIAK ETA BIDAIAK

LISBOA Urtarrilaren 19tik 22ra TRAVELTOOL HTL LUTECIA Bilbotik hegaldia + 3 gau 4* Hotelean gosaria barne	158 ^{'00} €
PARIS Urtarrilaren 20tik 24ra TRAVELTOOL HOTEL VICTORIA Bilbotik hegaldia + 4 gau 2* Hotelean gosaria barne	278 ^{'00} €
TENERIFE Urtarrilaren 5 eta 6an TRAVELPLAN HTL SAN TELMO Bilbotik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean pentsio erdian	384 ^{'00} €
GRAN CANARIA Urtarrilaren 5 eta 6an TRAVELPLAN HTL BEVERLY PARK Bilbotik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean pentsio erdian	428 ^{'00} €
LANZAROTE Apirilaren 21etik 27ra TRAVELTOOL APTOSD LA FLORIDA Bilbotik hegaldia + 6 gau apartamentuan	535 ^{'00} €
CRUZERO MEDITERRANEO Apirilaren 12tik 19ra TRAVELTOOL PULLMANTUR 7 gau TI : Bartzelona-Tunez- Pompeya - Roma - Florencia/Pisa - Niza	648 ^{'00} €

OPARI GEHIAGO ERE BADITUGU

vip kofreak

49^{'90}€TIK AURRERA

Kontsulta itzazu aukera guztiak!

HERNANI
BIDAIAK

Urbjeta, 6
943 33 00 49

www.hernanibidaiaak.com

AUKERA GEHIAGO ERE:
www.bidaibila.com

Eguberri on guztioi!!



GABONETAKO ZOZKETA

Ekarri zuen marrazkiak gure bulegora eta parte hartu PORT-AVENTURARA joateko egingo dugun zozketan
ZOZKETA EGUNA: URTARRILAREN 3an GURE BULEGOAN, ARRATSALDEKO SEIETAN.

BALDINTZAK: Gaia: "BIDAIAK"
Adina: 4-11 URTE
EPEA: urtarilaren 3a baino lehen

SARIA: Apirilaren 21etik 27ra
Port-Aventura 6 gauetako egonaldia
Hotela pentsio osoan eta
Port Aventura 2 egunetarako sarrerak
2 heldu eta 2 umeentzako